



**ZUZENBIDEAN ARITZEKO (III)
SEGI INFORMAZIOA BILATZEN, IRAKURTZEN, AZTERTZEN**

Mikel Mari KARRERA EGIALDE

AURKIBIDEA: I. Informazioa bilatzen: 1. Legedia.-2. Jurisprudentzia.-3. Doktrina.-4. Dokumentazio zentroak.-5. Errealitate sozio-juridikoa.-**II. Informazioa irakurtzen.**-**III. Informazioa aztertzen.**-1. Frogatzea eta argudiatzea.-2. Harremanak zuzenbidea.-3. Kasuak konpontzeko teknika.-4. Lanak egiteko ildoak.-**IV. Eskemak egiten.**

I. Informazioa bilatzen

Quod non est in libris non est in mundo
Liburuetan ez dagoena munduan ere ez dago

Hemen aipatzen diren argitalpen ia guztiak kontsulta daitezke Aldizkari Gelan, Dokumentazio Zerbitzuan, Ordenagailu Gelan (Datu-base informatikoak) edo Liburutegian. Zerbitzu bakoitzaren arduradunak azalduko ditu kontsultak nola egin eta materiala nola erabili, eta behar izanez gero eskatu laguntza irakasleari.

Argitalpenen artean bereizi:

Ofizialak Arlo batean eta bati buruz instituzio ofizial batek egiten dituenak. Balio ofiziala izango dute alor zehatz horretan.

Pribatuak Arlo batean eta bati buruz entitate pribatu batek egiten dituenak. Balio ofizialik gabe, entitate horrek lortzen duen errekonozimendua baino ez dute izango.

1. Legedia

Lege- eta arau-motorizazioa errealitatea dira eta ez dirudi gelditzeko asmotan denik. Gainera, erabaki politikoek legegintzako teknika askotan xahututa uzten dute.

Esaterako: BOE 26 de diciembre de 2003 (nº 309)

Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial

Ley Orgánica 20/2003, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica del Poder Judicial y del Código Penal

Kontuz indarrean dauden arauak topatzeko orduan; horretan laguntzen dute, ez bilduma ofizialek, baina bai bilduma pribatuek, bereziki datu-base informatikoez.

ESTATUKOA

BILDUMA OFIZIALAK

Historian *Gaceta de Gobierno* eta *Gaceta de Madrid* 1711. urtez geroztikoak mikro-fitxetan jarriak daude, *Colección Legislativa de España* izenpean.

Gaur egun *Boletín Oficial del Estado* BOE

BILDUMA PRIBATUAK

Diccionario Jurídico Administrativo Alcubilla 1853 (1. edizioa) / 1914-1930 (6. edizioa: 13 bolumen). Eranskinak urtero 1914-1972 bitartean.





Enciclopedia Jurídica Española Seix 1910 urteraino hiztegi moduan jasotzen du legeria. 1910-1935 aldian urtero eranskinak.

Aranzadi Repertorio Cronológico de Legislación 1930 urtez geroztik.

Aranzadi Diccionario de Legislación 16 tomo, 1950 urte arteko legeria hiztegi moduan.

Aranzadi Nuevo Diccionario de Legislación 36 tomo, 1974 urte arteko legeria hiztegi moduan; 1975 urtez geroztik eranskinak.

La Ley Revista Semanal de Legislación 1989 urtez geroztik.

AUTONOMIA ERKIDEGOKOA

BILDUMA OFIZIALAK

Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma Komunitate Autonomo bakoitzak aldizkari ofiziala dauka.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria/Boletín Oficial del País Vasco EHAA/BOPV

Boletín de Legislación de las Comunidades Autónomas Gorte Jeneralek argitaratua

BILDUMA PRIBATUAK

Aranzadi Repertorio de Legislación de las Comunidades Autónomas 1982 urtez geroztik Autonomia Erkidegoetako aldizkarietan argitaratu diren izaera orokorreko xedapenak biltzen ditu.

LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde Historiko bakoitzak Euskal Herrian eta gainerako probintziak aldizkari ofiziala dute.

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa

Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

Bizkaiko Egunkari Ofiziala / Boletín Oficial de Vizcaya

EUROPAR BATASUNA

BILDUMA OFIZIALAK

Diario Oficial de las Comunidades Europeas (DOCE) (Unión Europea) Multz desberdinetan dator: L Legislación, C Comunicaciones e informaciones eta S Suplemento.

Repertorio de la Legislación Comunitaria vigente Europako zuzenbide guztia analitikoki egituratzen du, arau guztien erreferentziak jasoz.

Boletín de las Comunidades Europeas (Unión Europea) Hilero argitaratzen da, eta Komunitate Europarrari buruzko informazio orokorra jasotzen du.

ATZERRIKO ZUZENBIDEA

Boletín de Legislación extranjera Gorte Jeneralek argitaratua 1995. urte arte. Mendebaldeko herrialdeetako aldizkari ofizialetan argitaratutako lege eta arauen erreferentziak jasotzen dira.

BESTEAK

LEGE BILTZARRAK

Legebiltzar guztiek dute: Aldizkari Ofiziala/Boletín Oficial (biltzarreko testuak jasotzen dira, bereziki lege-proiektuak) eta Bilera-Egunkaria/Diario de Sesiones (biltzarrean esaten dena: plenoetan eta komisioetan).

Hala nola: Espainiako Gorte Jeneralek Kamara bakoitzak (Kongresuak eta Senatuak) / Eusko Legebiltzarrak / Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek.



MINISTERIOAK

Ministerio bakoitzak bere aldizkari ofiziala argitaratzen du, barne-izaera duten arauak jasotzeko, hala nola Zirkularrak, Instrukzioak eta bestek.

UDALAK

Udal batzuk, handienak normalean, aldizkari ofiziala badute, bandoak, erabakiak, iragarkiak eta abar argitaratzeko (esaterako, Bilbok).

2. Jurisprudentzia

KONSTITUZIO-AUZITEGIA

BILDUMA OFIZIALAK

Boletín Oficial del Estado Aldizkari horretan argitaratzen dira ofizialki epaiak.
Boletín de Jurisprudencia Constitucional de las Cortes Generales Epai osoak argitaratzeaz gain, alderdien alegazioak ere argitaratzen dira.

BILDUMA PRIBATUAK

Repertorio Aranzadi del Tribunal Constitucional

AUZITEGI GORENA

BILDUMA OFIZIALAK

Colección Legislativa de España Justizia Ministerioak argitaratzen du.

BILDUMA PRIBATUAK

Repertorio de Jurisprudencia Aranzadi Astero agertzen da eta bi hilabetean behin koadernatzen dute. Aurkibide desberdinak dauzka (urterokoa): sistematikoa, analitikoa, kronologikoa, legearen arabekoa. Ia epai guztiak jasotzen dira baina ez guztiak, eta zenbaitetan ezta osoak ere. Erabiliena da. Indize orokorrak: 1930-1959, 1960-64, 1965-69, 1970-74, 1975-79, 1980-84, 1985-1992. Erreferentzi bibliografikoak ere jasotzen ditu zenbaitetan.

La Ley Revista Jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía Egunero ateratzen da alea, eta hiru hilabeteko tomo batean bildu eta sistematizatzen dira. Ez ditu epai osoak jasotzen.

Actualidad Civil Astero ateratzen da, eta hiru hilabeteko koadernatze sistematikoa egiten da. Lehenengo Salaren epai guztiak jasotzen ditu, baina ez osorik.

Jurisprudencia Civil (Revista General de Legislación y Jurisprudencia) 1853-1957 bitarteko Auzitegi Gorenaren epaiak biltzen ditu.

JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA

Epai **garrantzitsuenak aldizkari espezializatueta**n aurki daitezke: **Actualidad Civil**, **La Ley**, **Revista General de Derecho**, **Revista Jurídica de Cataluña**.

AUDIENTZIA PROBINTZIALAK ETA BESTE JURISDIKZIO-ORGANO APALAGOAK

Epai **garrantzitsuenak aldizkari espezializatueta**n azaltzen dira.

Abokatu-kolegioen aldizkarietan jasotzen dira bakoitzari dagokion Auzientziaren jurisprudentzia: **Boletín de pequeña jurisprudencia del Ilustre Colegio de Abogados de San Sebastián**, **Revista del Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya**.



Egun **CENDOJ**en datu-basea hartu behar da abiapuntutzat.

3. Doktrina (bibliografia)

ESKULIBURU OROKORRAK

Zuzenbideko atalak osorik **sistematikoki** jorratzen dituzten obrak.
Zuzenbidea **ikasteko** derrigorrezkoak, eta **edozein lanaren oinarri** gisa ere beti kontuan hartu beharrekoak dira.

MONOGRAFIAK

Gai zehatzei buruz idatzitako **liburuak**.
Oso liburu **espezializatuak** direnez zuzenbideko liburutegietan aurki daitezke batik bat.

Zuzenbide zibileko gaiak argitaratzen dituzten **argitaletxe** ezagunenak hauek dira; **Tirant lo Blanch**, **Aranzadi-Thomson Reuters**, **Civitas-Thomson Reuters**, **Dykinson**, **Francis Lefebvre**, **Lex Nova**, **Colex Data**, **Marcial Pons**, **Tecnos**, **Reus**.

HEMEROGRAFIA (ARTIKULUAK)

Zuzenbideari buruz aldizkari berezi asko daude. Esate baterako, bereziki Zuzenbide zibila ukitzen duten Espainiako **aldizkariak** honako hauek dira:

- Actualidad Civil** (AC, urte-tomoa, orria).
- Anales de la Academia Matritense del Notariado** (AAMN, tomoa, urtea, orria).
- Anuario de Derecho Civil** (ADC, urtea, orria).
- Aranzadi Civil** (AC, urtea, orria).
- Cuadernos Cívitas de Jurisprudencia Civil** (CCJC, urtea, orria).
- Revista Aranzadi de Derecho Patrimonial** (RDPA, alea, urtea, orria).
- Revista Crítica de Derecho Inmobiliario** (RCDI, urtea, orria).
- Revista de Derecho Notarial** (RDN, alea, urtea, orria).
- Revista de Derecho Privado** (RDP, urtea, orria).
- Revista General de Legislación y Jurisprudencia** (RGLJ, urtea, tomoa, orria).
- Revista Jurídica de Cataluña** (RJC, urtea, orria).

Kontsulta daitezke ere Zuzenbideari buruzko aldizkari **orokorrak**: **Revista General del Derecho**, **Revista Jurídica La Ley**, **Revista Jurídica de Navarra**.

BESTEAK

- Lege komentatuak** Bat-etortzeak, jurisprudentzia, komentarioak.
- Lege bildumak** Gaiaren arabera.
- Txosten juridikoak** *Dictámenes*.
- Formularioak** Prozesuen praktika, notariotzako praktika, kontratuak, eskriturak, hitzarmenak, eta abar.

4. Dokumentazio-zentroak (artxiboak)

Erakunde publikoen dokumentazioa jasotzen da nagusiki artxiboetan. Bertako dokumentazioa jendearentzat eskura jartzen da, artxibo bakoitzak jarritako baldintzen arabera.

Erakunde publikoek sortutako dokumentazioa: batzarrak, erabakia, txostenak.





Korregidorearen edo beste organo jurisdikzional baten erabakiak eta epaiak.

Notarioen protokoloak: notarioek egiten dituzten dokumentu (eskritura eta akta) guztiak ehun urte betetzen dituztenean artxiboetan jasotzen dira.

Higiezin eremuan, *Oficio de Hipotecas* delakoa, *Registro de la Propiedad* sortu aurretik.

5. Errealitate sozio-juridikoa

Giza portaera Egitate juridikoak ondorioztatzeko, giza portaerak eta horiek zuzenbidearen bizitzan duten eragina azter daitezke. Zuzenbidearen Soziologiak ikertzen du bereziki eta alor horren magalean aurkituko da ikerketa mota horri buruzko analisía eta informazioa.

Zuzena Bereziki zuzenbidearen bizitzari dagozkion egitateak. Gizakiaren portaera juridikoa zein den ikustea, bertatik ohitura juridikoak zeintzuk diren ondorioztatzen baitira.

Zeharkakoa Zuzenbidea zuzenean ukitzen ez duten portaerak, baina zinetatik ere gizakiaren portaera eta ohiturak ondoriozta daitezkeen.

Teknika Helburua zuzenbidea bizi-bizian aztertzea da. Horretarako nagusiki hiru ikerketa-teknika erabili daitezke:

Obserbazioa Ikusi ea zein den erakunde juridiko baten benetako funtzionamendua. Ikertzaileak, horretarako, ikertzen duen taldean parte har dezake zuzen-zuzenean elkarbizitza bidez, edo egitateen lekuko soila izatera mugatu.

Inkesta Obserbazio mota bat da, baina kontrolatua. Pertsonen iritziak jasotzen dira, baina gai zehatz batzuei buruz zuzenduta. Aurrez egin behar den prestakuntza eskatzen du, eta normalean horretan aritzen diren pertsonengana jo behar da inkesta ondo bideratzeko (erantzuleak aukeratu, galdeketa egin, analisía).

Elkarrizketa Ahoz emandako iritziak jasotzea da. Mota askotakoak izan daitezke elkarrizketak. Lortu nahi denaren arabera moldatu beharko dira: bakarka/askorekin, egitateak jaso/iritziak jaso, aurrez prestatua/inprobisatua.

II. Informazioa irakurtzen

Fitxa Irakurtzen den guztia fitxatu behar da, erabilitako eranskinak osatzeko, zerbait irakurtzen denean, jakin behar baita **nork** idatzi duen, **zer** irakurtzen den (testuaren testuingurua) eta **zertarako** irakurtzen den.

Ulertzea Edozein zalantza termino bati buruz edo esaldi bati buruz, azpimarratu eta argitu egin behar da berehala.

Hiztegia Terminoaren ohiko esanahia: Gaztelerari buruz, *Diccionario RAE*.

Hiztegi juridikoa Termino juridikoetara lehen hurbilpena egiteko.

Hustea Testutik, interesatzen diren ideiak hustu, xurgatu edo atera behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da ideiak bereiztea.

Legeak esaten duena Abiatzeko, legeak esaten duena irakurri eta interpretatu behar da. Erakunde juridiko askoren kontzeptua, esanahia, sailkapena eta eskematizazioa legeak berak ematen ditu.

Egilearen lan sistematikoa Arau desberdinetan araututako erakunde juridikoak elkarrekin zer nolako lotura duten eta zer nolako arazoak sortzen diren azaltzeko, zuzenbidearen sistema osorik aztertzen da.





Egilearen iritzia Doktrinak burutzen duen lanean, arazoak zehaztu eta aztertu ostean, egileek beren ustea eta iritzia ematen dute erakundeari buruz, zenbaitetan erakundea arautzeko proposamen berriak eginez.

Egilearen interpretazioa Askotan, araua ulertzeko modu desberdinak daude. Aukera anitzen artean, jarrera bakoitza defendatzeko zein argudio juridiko erabiltzen diren zehaztu behar da.

Liburutegian Liburuak sailkatzeko sistema hau erabiltzen da

UDC Universal Decimal Classification	CDU Clasificación Decimal Universal
Nazioarteko sailkapena	Espainiako ISBNren Agentziak egindako sailkapena
34 Law. Jurisprudence	34 Zuzenbidea
Scope Note: <i>The method of classification of section 34 is independent of the legislative systems of particular countries with different philosophies of law; it provides instead an arrangement and hierarchy based on generalized legal principles. Only in this way can a classification be offered that is equally applicable to any country</i>	

III. Informazioa aztertzen

Me dije: Lincoln, nunca podrás ser un abogado si no entiendes lo que significa demostrar; y dejé Springfield, marché a mi ciudad, a casa de mi padre, y permanecí allí hasta que pude leer todas las proposiciones de los seis libros de Euclides. Entonces encontré lo que significa demostrar y me volví a mis estudios de leyes **Abraham LINCOLN: “Esbozo autobiográfico”, Unión y Libertad**

1. Frogatzea eta argudiatzea

Debatea irabazteko Jakin behar dira eztabaidatzeko ezarri diren erregelak (bereziki, epaitegietan aritzeko, prozesuei buruzko zuzenbidea), eta **lor**tu behar da norbaitek (epaileak/aurkariak/jendeak) arrazoia ematea. Horra hor **argudioaren**, **azaltzeko moduaren** eta **frogaren** garrantzia.

Argudioa Ordenamendu juridikoak bat eginda jarraitzeko beharrezkoa duen itsugarria da justifikazioa. Proposizio juridikoak, justifikazio logikoa behar du. Horregatik, argudioa ere, baieztapearen baliotasunaren ikuspegitik sinesgarria izateko, **logikaren** erregelen arabera eraiki behar da.

Asmoa Arazoak konpontzeko, **interesdunak** aurreposizio honetatik abiatu behar du:

Gaia ikertzeko **interesa** izan behar du, hau da, arazoa konpontzeko erronka onartu.

Gaia eta eremua **ezagutu** behar ditu.

Gauza **berriez** jabetzen ari dela konturatu behar du.

Susmoak eta **aburuak** idatziz adierazi behar ditu.

Adierazpen oro begiratu, arakatu eta **egiaztatu** behar du.

Kasu zehatzak azpian edo oinarrian daukan **eredu** nagusia, beste arazoetarako ere balio duena, finkatu behar du.

Etengabe hasieratik **berri**z **haste**ko **prest** egon behar du.





Estrategia Gero, arazoak konpontzeko estrategiari ekin behar zaio:

Arazoa zehaztu Ulertu, norberak bere hitzekin adierazi; datuak banandu; informazioa osatu; aurrez izandako esperientzia arakatu; besteekin iritziak trukatu.

Egitasmoa finkatu Definizioak; arazoaren eremua; eraentza propioa; ahal bada, irudikatu.

Helburuak Helmuga eta zailtasunak zehaztu.

Metodologia Helburua lortzeko pausoak zehaztu.


Egitasmoa burutu Pausoak banan-banan eman.

Idazkia prestatu Edonork ulertzeko moduan.

Azken hausnarketa egin Ahal bada denbora iragaiten utzi ostean.

2. Harremanak zuzenbidean

Ezein azterketa egin aurretik, kontuan izan zuzenbidearen eremuan pertsonen artean agertzen diren hartu-emanak izaeraz izan daitezkeela **aurkakoak** (norbaitek badu, bestea ez du) edo **kideak** (norbaitek badu, beste norbaitek ere badu).



HOHFELD (1913)

3. Kasuak konpontzeko teknika

Teknika guztiek badute ezaugarri komuna: **eginez** ikasten da (bizikletan ibiltzen, igeri egiten edo autoak gidatzen ikasten den bezala). Noski, burua erabiliz, baina kasuari ekin, abiatu eta pausoak emanez, horrela bizitako esperientzia barneratua geratzen baita. Buruz ikasitakoa ahaztu egiten bada ere, ulertutakoa ezin da desulertu eta praktikaturakoa ezin da despraktikatu.





Abiapuntuan Zehaztu beharreko **erreferentziak** dira:

Egitateak Arau juridikoak eta arautzen dituzten egitateak ulertzea.

Erlazioak Oinarrian dauden erlazio ekonomikoak eta gizartekoak zehaztea.

Interesak Pertsona edo pertsona-multzo bati babesten zaizkion interesak argi izatea.

Helburua Erakundearen azterketa sistematikoa baino, arazo praktiko bati buruz arau juridikoek zer ezartzen duten adieraztea da: auzi batean (antzekoak ahaztuz), aldeko eta kontrako argudio juridikoak ematea. Auzi bakoitzak bere eremua dauka eta eremu horretan agertzen diren arazoei bakarrik erantzun behar zaie: eremu horretan ezer ahaztu gabe, baina hortik kanpora joan gabe (*obiter dicta* ez bada).

Erlazioak marraztu

Subjektuak Arazoan azaltzen diren pertsonak apuntatu paperean/pizarran.

Egoera juridikoa Pertsonaren estatutu juridikoa zehazten duten erakundeak.

Erlazioak Pertsonen loturak marraztu.

Pertsonekin: familia, eskubide pertsonalak.

Gauzekin: eskubide errealak, hau da, gauzaren estatutu juridikoa osatzen dutenak.

Gertatutakoa Egitateak apuntatu paperean/pizarran.

Marra edo segida kronologikoa Horizontalean edo bertikalean.

Arazoa zehaztu Azterketa egiteko, ordena bat jarraitu behar da:

Arazoaren eremua zehaztea.

Eremu hori arautzen duten arauak bilatzea.

Arauak eskatzen dituen auresuposamenduak eman diren aztertzea.

Aplikagarri den arauaren ondorio juridikoak aplikatzea.

Froga Zehaztutako egitateek bideratuko digute eman behar den erantzunaren zorroztasuna. Errealitate juridikoa osatzeko, egitateak **frogatu** egin behar dira:

Subjektuen estatutu juridikoa Gaitasuna, egoera zibila, **auzotartasuna**, naziokotasuna...

Objektuen estatutu juridikoa Jabetza, eskubide erreal mugatuak, erregistroak...

Erlazio juridikoak Filiazioa, familia, kontratuak, obligazioak...

Egitateak eta eragina izan duten gertaerak Denbora (preskripzioa, kaduzitatea), lekua, adierazpenak (nork eta nola egin dituen kontuan izanda), txostenak, kalteak, irudiak...

Presuntzioak Frogaren eremuan, kontuan izan **presuntzioak**: *iuris et de iure* eta *iuris tantum*. Zuzenbide zibileko presuntzio nagusiak (*iuris tantum*) hauek dira: pertsonaren gaitasuna, fede oneko jarduera, jabetzaren askatasuna.

Adierazpenak Egitateak, adierazpenak (idatziz edo ahoz emanak) badira, **interpretatu** egin behar dira: eremu juridikoan duen irismena zehazteko.

Hizkera arrunta Kontuan izan jendeak ez duela hizkera juridikoa menperatzen eta terminoak esanahi desberdinarekin erabil ditzakeela: esaterako “nirea da” (Edukitzailea da? Jabea da?), “eskriturak egin” (Zein da edukia?).

Adierazpen desberdinak Alderatu bat etortzeak eta kontraesanak.

Zantzuak Froga osatzeko edo interpretatzeko, **zantzuak** ere kontuan hartuko dira.

Kalifikazioa Gero, egitateak **kalifikatu** egin behar dira: egitateak, aurrez emanak diren molde juridikoetan txertatu behar dira.



Oharra: azterketako kasu praktikoa bada, hitzez hitz (literalki) hartu behar da, deskripzioa interpretatu gabe, eta aipatu gabeko irregulartasunik edo anomaliarik ez dagoela ulertuz. Beste gauza bat da hutsuneak egotea edo datuak faltatzea; orduan, ikusi behar da garrantzirik baduten eta, hala balitz, aipatu.

4. Lanak egiteko ildoak

Ezein azterketa zientifikoren helburua, errealitatea **disekatzea** da. Beraz, azterketa zientifiko-juridikoan ere, metodo zientifikoaren pausoak eman behar dira, gidarizat hartuta honako erreferentzia-puntu hauek:

Arazoari mugarriak jartzea Analisi orotan, erabaki beharreko lehen zeregina lanaren mugak zehaztea da.

Behaketa (zer) Errealitateko fenomenoak edo gertakaria begiratu, hau da, errealitate juridikoa deskribatu.

Bilakaera (zergatik eta nola) Errealitate hori sortu eta abiarazi duten kausak eta eraldaketak aztertu.

Ekarpenak Errealitate juridikoa zehaztu ostean, horren gaineko gogoetak burutu behar dira, ahal dela zerbait eransteko asmoarekin.

Hausnarketa Errealitate juridikoak zeri erantzuten dio: jatorrian babestutako interesak eta aplikazioan probetxua jasotzen duten benetako onuradunak.


Formulazioa Errealitateari aplikatutako eraentzaren justizia ulertzeko baliozkoa izan daitezkeen hipotesiak edo teoriak eraikitzea.

Berrikuntza Emandako hipotesiak aplikatzeak sortzen dituen eraginak azaldu eta parametro berriak proposatu.

IV. Eskemak egiten

Egitate bakoitza eta eragin juridikoa bere garaian zehaztea

Elementu horiek guztiak komeni da eskema eta **diagrama** bidez adieraztea: lerro **kronologikoa** egitea (Ishikawa diagrama, arrain itxurakoa)






Hemen, zuzenbide zibileko eremua hartuko dugu jorra-leku.

Subjektuen arteko erlazioak argitzea

Ahaidetza, filiazioa, ezkontza



Filiazioa Oinarria biologian, baina legez zehaztu beharrekoa

Ezkontza Legez burutu beharrekoa

Ahaidetza Filiazioz eta ezkontzaz sortzen den sarea

Eskubide pertsonala

OBLIGAZIOA				
Subjektu	Alderdi hartzekoduna	Kreditua (eskubidea) →	Alderdi zorduna	Subjektu
juridikoa	(P1) (P2) ... (Pn) mankomunitatea / solidaritatea	Objektua Prestazioa (portaera)	(P1) (P2) ... (Pn) mankomunitatea / solidaritatea	juridiko
		← Zorra (betebeharra)		
ERANTZUKIZUNA				

Erlazio konplexua

Estatikan Elementu **guztiak** banan-banan egiaztatu behar dira

Dinamikan Elementu bakoitza **alda** daiteke ondoren

Ohiko arazoak

Iturria Obligazioa nondik **sortu** da; bakarra da edo hainbat dira

Alderdiak Hartzekoduna (**bat edo anitz**) eta zorduna (bat edo anitz)

Prestazioa Bete beharreko **portaera** zein da

Osagarriak **Baldintza, epea** eta **modua**

Lotura Beste obligazioen batekin **loturarik** ba al du

Betetzea **Nork, noiz, non** eta **nola**

Oharra Ikusi zuzenbide zibileko eskemak eranskinean





Eskubide erreala



Erlazio **erraza**

- Estatikan** Elementu gutxi arazoa topatzeko.
- Dinamikan** Elementuek ez dute aldatzeko joerarik.

Ohiko **arazoak**

- Titularra** Nor da **edukitzailea** eta **jabea**.
- Gauza** Zer da; **higiezina** bada, hedadura horizontala eta bertikala zehaztea.
- Erlazioa** Eskubide erreala nola **eskuratu** da.
- Eskubide erreala** Zein **ahalmenek** osatzen dute.

Oinordetza

Pausoz pauso burutu beharreko **prozesua**

Erregistro Zibila	Heriotza-ziurtagiria	Azken boronadetari buruzko egintzen Erregistro Orokorreko Ziurtagiria Heriotza estaltzen den jakiteko Aseguru Erregistroko Ziurtagiria
--------------------------	-----------------------------	---

Oinordetza titulua	Oinordetza ituna Testamentua	Aldebakarrekoa Mankomunatua Komisario bidezkoa
	Jaraunsle deklarazioa	Notaritzan Epaitegian

Inbentarioa	Aktiboa	Higiezinak Ibilgailuak Dirua, akzioak, baloreak Aseguruak Etxeko gauzak Balorazioa
	Pasiboa	Hildakoaren zorrak Herentziaren zorrak

Banatzea	Banaketa-koadernoia	Dokumentu pribatua Dokumentu publikoa
-----------------	----------------------------	--





Zergak	Oinordetza-zerga	Aldundia/Estatua
	Hiri higiezinak balioa gehitu izanaren zerga	Udala

Ondasunak eskuratzea	Entrega	Edukitza kitatzea
-----------------------------	----------------	-------------------

Eremua zehaztea

Zuzenbide zibilean erlazio juridikoak, normalean (obligazio-zuzenbidean bereziki), bi alderdi ditu (zenbat subjektu beste kontu bat da). Beraz, komeni da beti bi alderdi horiek bereiztea, hala jokoan dauden interesak azalerraten baitira.

Erlazioak bitan zatitu eta zati horien arteko harremanak zehaztu. Gero, zati bakoitzean dauden erlazioak ere zatitzen joan. Horretarako formulazio hau jarraitu daiteke: nork (alderdi 1) zer nahi du (pretentsioa), eta nori eskatzen dio (alderdi 2).

Ideiak ematea eta elkarren artean trukitzea

Brainstorming Arazoak zehazten eta aztertzen joan ahala, ideiak azaltzen joaten dira.

Ezein ideia Burutazio guztiak jaso behar dira, zentzu gehiegirik ez dutenak ere bai; ikuspegi irekia izan behar da fase honetan.

Idatzi Jasotzeko eta apuntatzeko, beti zerbait eskura eduki behar da.

Teknikak Ideiak besterik gabe jaurtitzea, eztabaida, aurrez izandako esperientziak errepatatzea.

Egitura Horrela lortutako ideien kaosa, ondoren, egituratu egin behar da.

Ikerketa Zerbait berria ikasten hastean, ikerketako prozesu bat jartzen da martxa. Nola sortzen da ikerketa? Interesak eta nahiak eskatuta. Hain zuzen ere, ikasleek zuzenbidea ikasteko interesa eta nahia badutela *iuris et de iure* presumitu behar da eta, ondorioz, irakasleak gaiak praktikan duen garrantzia eta eragina azaldu behar baditu ere, gaiaren interesa behin eta berriz azaltzen aritu beharrik ez dauka derrigorrez.

Nola eta norantz Lehen zeregina, informazioa biltzea izango da, gero informazioa interpretatzea eta, bukatzeko, emaitza aditzera ematea:

- (1) Dagoen informazioa biltzea (sistematizazio berria).
- (2) Informazioa interpretatzea baina dagoen guztia jaso gabe.
- (3) Erakunde juridikoak gizartean duen funtzioa zehaztea.
- (4) Defendatutako interesak azaltzea.